

Egunetik egunera orduen gurgillean Xabier Lete'ren lenengo poema liburua

Egun gutxi barru, Xabier Lete poetaren lenengo poema liburua aterako da. Hori dela ta, Juan San Martin-ek bertako idatzituen itzaurrea ematen dugu hemen.

Xabier Lete, «Ez dok amairu» taldeko karia denez, ezaguna da Euskal Herriko bazterrik geienetan, eta horrek librazten nau bera ta bere bizitzari buruz jardun beharretik. Bere kantak, ala bere poesia, berdinak diranez, era berriko protesta gartsuki batean eginak ditu.

Beraz, poemok gizonaren neurria taxutuak dituzenez, ulertzerrezak dira, beren kabuz mintzatzen diranak.

1966-an «Agora» alkargoak eratuako poesi sariketako maiburu nintzen. Beste zenbaiten artean, urte haretan, lau poeta handi presentatu ziren, zein baiño zein oheagoak; ta gertaera hura enetzat pozgarria izan bazen ere, gure larritasunak ere handiak izan ziren lau-

ametsetatik bizitzaren errealitateira itzuli beharra.

Kontzientzia argiz jokatzen du Lete bere lan guztian, bere literatura ekintzaren jomuga nora dioan dakienaren gisa, bere barnean sakonduaz esperientziak lortutako egi personalakiz mintzatuz, eta bide baze herri baten egoera ta prolemen lekuko sentitzen delarik. Badirudi bizi geran (edo, obeto esanez, existitzen geran) gizarte honen molde guztiak aski nahi dituela, beifian gizonaren dignidade gutxiarekin jokatuz. Lete, bere barne-nunin eskariz da poeta. Ta horregaitik dabil alor huntan hain naher.

Agirian dago Aresti gandik kutsatua dela, bere eskolatikakoa dela. Hots, *Harri eta Herri*-kin sortu eta

sia artea dela, baiña ez artea arte hutsean aldetik begiratu, baizik objektibidade bati begira.

Bigarren parteko poemak, esan dugunez, landuagoak ditu. Poemen muña ta azala obeto egosiaz. Horregaitik, «Bide ezkutua»-ko bera ez dirudi zenbait poemetan. Lurrean seme zintzoa aberri-miñez nabaitzen da «XVII»- Ni bizi naizen lurrean» poema hungigarrian, ideak ongi birlikatuaz. Eta lirika ari zaigu «XVIII-Baztan-go lurra» poeman. Hiru poema hoiak, beste gabe, aski dira poetaren neurri sakona emateko, gaiez eta estiluz.

Amaileran dion bezela, bere iturria noizbait bukatuko da, baiñan bere iturri hori agortu orduko muinuzoz esperantza ongariaren fruitu emakorrak ongi bustiko dituen iste osoan gora.

JUAN SAN MARTIN

EUSKALTZAINDI'ko Sekretaritzatik Literatura - euskeraren batasuna

Lengo batean agertu nitzakuten Euskaltzaindiko batzordeak onartutako iritzi batzuek, literatura-euskeraren batasunari buruz alegia. Bijaaz gaur beste batzuek:

—Euskal izkuntzak naitaz Itz berriak bear ditu. Nola sortu, edo mundik artu? Euskal sustraistatik sortu edo erderatik artu? Oraindik urte asko ez dala iritzi ta zan euskaltzaleen artean: Zenbat eta euskerak erdal-kutsu gutxiago, ainbat eta euskera euskaldunago. Eta iritzi garbizale au gailendu zan euskal-idazleen artean. Urte astant, berriaz, beste aldera ju dute euskal idazle askok, eta, erdal itzak onartuaz, ezereen korapillorik gabe darabilzkite. Gai ontan, batzordearen iritzi au da: Beraz, bi bidesk onak dira; ordiko bide bat artu bear degu eta bertan saia.

—Aditza batbera da euskalki danetan. Ezberdiñak axalekoak dira. Baiño gramatika-formak ez naastearren, idatzit batberaren baitan aditza-forma bakarra erabilñi. A. b. Xubera, Gipuzkera eta Bizkaieraren aditza-formak alkarrekin naasteke idatzit baten barnean.

—Itz teknikoak: ab. geografía, algebra t. a. bere jatorrizko mintzasoñiu berarekin artu, aldakuntzik gutxiena eragilñaz euskeratzeoan.

—Batasunaren etorkizunari begira, Gipuzkera gailunduko ote dan dirudi. Edo oheago esateko, bizitzak bere izate-indarrez gorputzaren erdialdean oi du indarrik geiena. Azkue aundiak ere alaxe zerkitlan.

P. B.



retatik bat hautatu beharez. Metafisika asistentzialaz, era absurduz, era konkretuz eta gizarte gaidun funtzionalaren artean ez zen erreza hautapena. Guztiak ziren onak, bakoitza bere maillan. Baiñan mailla hoiaren artean bereizkuntza egitea, neurritz kanporakoa zen. Beraz, zein hautatu? Ene iduriz, beti pentsatu dudanez, hoberearen artean hutsa egitea parkamenezkoa da maiburu batentzat eta nolabait erabaki behar zen. Amaika azterketa eta eztabaidaren ondorean, poesia funtzionalaren alde jokatu genituen gure aburuok *Pekatu zaharrak eta sinimen berria* izenekoari eman genion lehen saria. Gero jakin nuenez, Xabier Lete zen bere egilea.

Beste haien artean zergaitik era hortako poesiaren alde? Herria eta bere polemak aintzat harturik gure artean poesiari tokatzen zaion leku egokia ematearren. Bere sozial gaia osagarri bat izan daiteke hanitz sufritzen duen herriarentzat. Gaiñera, premiazkoa genuen mintzaira burgesen eskuetan bakarrik ez egotea. Premiazkoa gure euskal literatura herri behartsuari begira jartzea, herri lohartuari bere aberri-miña irartzitzeko, herri humillari itzaropenezko kanta eskeintzea, poesiari mespreziozko fama kendurik berri herriaren ahoetara eramatea, eusker a euskaldun behartsuen goetean txertutzea. Bertako gai eta poetaren etorria hain justuak bai ziran gizonaren behar hoiaren alde, ta hain beharrezkoa gure literatura lainoetako

gorputzu zen Arestiren eskolatik influentziatua. Baiñan bere iturriok handiakok badire ere, oso bereak ditu Lete, indar berriuz adierazpen bizi baten jabe direnak, naiz mingostasunez naiz goxotasunez, eta gaiñera hikuntza aberats eta kementsu baten jabe dena.

1967-ko sarikaten, «Agora» eratu hain ere, berri irabazi zuen *Egunetik egunera orduen gurgillean* poemekin. Izen berbau hartu du liburu honentzat, bi urteetako poemarik hobereenekin osatua. Bigarren sari hunez, behar bada, ez zuen lehengoak haiña merezimendu, era berean egina egualako. Zeren, poetak berakin du era berriak sortu beharra edo lehengoak obetu beharra. Bigarren huan zerbait landuago nabaitzen dugarrenen, egin duen aurrerapena tipia da. Baina amaiza onak espero ditugu, zeren gazte da eta bihotz handi batekin zentzu praktikoa bai du.

Poeta onak berekin duten profeta kutsua darama Lete. Aurrerapenak ulzi zituen gizarte bati monito da, aldakuntzen alde gaztigitzen dela.

Ez dago zalantzarik Lete-ren poe-

Bertsulariak Sara,n

Lapurdi-Baxenabarra, Bizkaia'ren aurka

Lapurtarrak eta Baxenabartarrak batuko dira gaur Sara'ko erri polit-maitagarrian bertsolari txapelketa bat bizkaitarren aurka jokatzeko.

MATTIN ETA XALBADOR, ASPILLAGA ETA LOPATEGI'ren aurka, binazka. Bikote bakoitzaren puntuak jokatu dute beriz bikoteak irabaz lezazken puntuen aurka.

Bertsularien artu-emanetan ez da oraindik orrelakorik ezagutu. Bertsulari bakoitzak bere nortasuna gaitzen du, eta HERRIAREN izena eta ohoria goratzen saiatuko da.

LAPURDI-BAXENABARRA edo **BIZKAIA** izango dira txapelidun, ez bertsulari bat.

Gudaketa gogorra zalantzarik gabe Sara'n ikusiko deguna, baiño adixkide eta amat arteko gudaketa zintzoa eta laiala.

Mattin eta Xalbador onak dira, denak dakigu Baiño Lopategi eta Aspillage egungo egunian binakatu liteken bikoterik onenetakua da. Eta gaiñera badakigu gogotzik aundiaren datozela Bizkaia'ren izena zaindu eta GOI-GOIAN uzteko.

Ez da dudarik oraindauo ikusi degun saioketarik ederrenetakua ikusiko degula SARA'n gaur.

MEZA NAGUSIA BERTSULARIEKIN ETA XISTUAKIN

Heskuak-Herriaren lehen aldiko ikusiko degu Meza Nagusi bat bertsulariaren. Juan Erretorak errestasunik aundiaren eman ditu orotaroko, Kantatuko dute Meza asteran, Meza erdian eta bukatzen danian.

HERRIKOETXEAN ALKATEAREN ONGI-ETORRIA

Meza ondoren, Sarako Konseiluak, bertsulariak eta

adixkideak Herrikoetxean bilduko ditu eta Alkateak arno xorta batekin eskeiko diote Sara'ko erriaren izenian ongietorria.

Ondotik oren batean banketia Trinketian. **SARIAK, BI KOPA** eder eta **URREZKO MONEDA** BAT.

Bi kopa oiek irabaziko ditu Sara'n eta Paris'en punturik geiena ateratzen dituan bikoteak. Baiño bereganatzeko **BI URTETAN** bearko ditu irubazi errezkadan.

URREZKO MONEDA, Mexiko bertsularien adixkide batek urrezko moneda bat eskeintzen du, berak ezartzen duan gai baitian, bertsorik onena ematen duanentzat.

ARROSSAGARAY, IRIBERRY eta **MIXEL** (Xalbador'en semea).

Bertsulari gazteak ditugu iru oiek. Orain asten diranak. Egun Sara'n oriaziko ditugu, emeki-emeki jendearen aintzintan kantatzera ausartu ditzen.

An-emenka bertsulari nagusien saioketa moztuko da, gazte oriek bere talenduak ager ditazten.

Ikusiko degu, beraz, eu bertsulariak... ondorengorik baduten.

EPAILTZOKO BIDE BERRIA

Egun bertsulariak epaitzeko bide berri bat enseatu-ko da. Izango dira IRU EPAILARI probintzi bakoitzetik: Gipuzkoa, Bizkaia eta Lapurdi.

Ona izenak: Gipuzkoa'tik, Borduri, Ayalde eta Arnalde. Bizkaia'tik, Mumiategi, Arregi eta Antzemendi. Lapurdi'tik, P. Laffitte, Itzaina eta E. Larre.

Epailari bakoitzak bere egiteko berezia izango du.

SARATARRA

CAJA LABORAL POPULAR

(LAN KUTXA ERRIKIOIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

- Ourrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
- diruketa-saillean
- lantegi- zuzendari-tza saillean

ZUK AUERRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITEK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU.

Laguntza ezin oheak, etekin eta irabazirik aundiaren eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu.

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

| | | | |
|--------------------|-----------|-----------------|----------|
| Mondragoi | Beasain | Pesai San Pedro | Ernani |
| Aretxabaleta | Gernika | Erranderi | Zarauz |
| Elorrio | Zumarraga | Gartzel | Sesto |
| Barakaldo | Elgoibar | Bilbo | Azkotia |
| Ondarroa | Markina | Legazpia | Munguia |
| Andoain | Bergara | Iruo | Yurre |
| Plazentzi-Soraluze | Aizasua | Durango | Bermeo |
| Oñati | Eibar | Amorebieta | Lasarte |
| Ormaiztegi | Tolosa | Azpeltia | Santurce |
| | | | Zumaya |

TRANSPORTES



ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Donosti'tik egunero:

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijon, Iruña, Bilbao, Gasteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria'ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA

Tefnoak.: 25.457 eta 26.987